

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



1. Zer dira behar ditugun elementu garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

o Baliabide fisikoak:

➤ Hainbat mekanismo beharko ditugu gure proiektua aurrera eramateko, adb: turbinak, engranajeak, kableak, erremintak (aliketak, mailuak...), filtroak, tutueriak babesteko isolatzaileak, cutterra ...



Turbina



Engranajeak



Kableak




Aliketak



Mailuak



Tutuerietarako filtroak




Tutuerietarako isolatzaileak



Cutterra



Kreamilera




Bateriak

Tinpano eta hezurren simulazioak



Sorgailua



- Web-orri bat erabiliko dugunez gure produktuak saltzeko, sistema informatiko bat erabili beharko dugu. Horretarako ordenagailu bat beharrezkoa izango dugu gutxienez.
- Banaketa sare bat erabiliko dugu, produktuak bezeroei helarazteko. Beraz, azpiegiturak beharrezkoak izango dira.
- Gure produktuak ekoizteko leku bat beharko dugunez, lokal edo gela bat erabiliko dugu.
- Proiektua martxan jartzeko ordenagailuz edo eskuz sortu ditugun dokumentu eta gidoi guztiak, gure ideiak biltzen dituztenak.
- Hainbat makina erabiliko ditugu materialak eraldatzeko eta hauek produktu bihurtzeko, adb: zulagailua, zerra...



Zulagailua



Zerra

- Berez, gure enpresak furgoneta propio bat izan beharko luke, produktuak bezeroei helarazteko, baina produktuak banatzen dituen enpresa batekin aliantza sortuko dugunez, enpresa horretako ibilgailua erabiliko dugu (esternalizazioa).
- Baliabide intelektualak:
 - Bezeroen datu-baseak ere atal honetan sartuko lirateke.
 - Patenteak eta egile-eskubideak, gure enpresa sortzeko beharrezkoak direnak.
 - Beste enpresa batzuekin sortutako elkarteak.
 - Giza baliabideak:
 - Taldeko partaide bakoitzak proiektuarekiko duen sormena eta jarrera beharrezkoak dira, adibidez, mekanismoak asmatzeko eta hauek funtzionatzeko behar dena zer den jakiteko.
 - Ezagutza beharko dugu gai honen inguruan, gure mekanismoek era egokian funtzionatzeko. Gainera, teknologiarako ezagutza ere beharrezkoa izango da, besteak beste, internet erabiliko dugulako gure proiektua saltzeko.
 - Taldekide batek gutxienez gaitasun komertziala izan beharko du, produktuak saltzeko erraztasuna sustatzeko.

- Gai honen inguruko esperientziarik ez dugun arren, abilezia dugula uste dugu, eta horregatik gure enpresa sortzeko ahalmena dugulakoan gaude eta behar izanez gero, kontaktuak erabiliko ditugu proiektua martxan jartzeko, adibidez: enpresa nagusietako jabeak, gizabanako batzuk...
- Finantza baliabideak:
 - Proiektua martxan jartzeko eskudirua beharko dugu, hau da, bakoitzak dituen aurrezkiak erabiliko ditugu gure enpresa abiarazteko.
 - Behar izanez gero, kreditu bat eskatuko genuke.